## Europarekiko eszeptizismoak gora egin du Euskadiko gazteen artean

***Gazteriaren erdia baino gutxiago sentitzen da europarra***

**Europako eguna** dela-eta (**maiatzak 9**), Euskadiko gazteen artean europar-sentimenduaren hedapenari buruzko datuak plazaratu nahi ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Horretarako, 2012an 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko 1500 gazteri egindako galdera bati emandako erantzunak hartuko ditugu oinarri. Galdera horretan zenbateraino sentitzen ziren europarrak galdetu genien gazteoi.

Emaitzak ikusita, esan dezakegu EAEko gazteen erdiak baino gutxiagok (% 39) sentitzen duela oso edo nahikoa europarra dela. Heren bat (% 33) ez da oso europarra eta % 19 batere europarra ez. Gainerako % 9ak ez du iritzirik azaldu.




Oso edo nahikoa europartzat definitzen zirenen ehunekoak goranzko joera zuen 2000. urtetik 2008. urtera bitarte, baina 2012an behera egin du. Baliteke krisialdi ekonomikoaren ondorioz Bruselatik ezarritako politika ekonomikoekiko gaitzespena izatea horren arrazoi, herritarrengan, oro har, eta gazteengan, bereziki, Europatik urruntzea eragin baitute.




Sentimendu europarra barneratuagoa dago gazteenen artean eta adinean aurrera egin ahala, gero eta txikiagoa da.

Aldiz, politikarekiko interesak ez du eragiten sentimendu europar handiagoa edo txikiagoa izatean.

**Zenbateraino sentitzen duzu zure burua europar?**

| (%) | GUZTIRA | ADIN TALDEAK 15-19 urte | ADIN TALDEAK 20-24 urte | ADIN TALDEAK 25-29 urte | POLITIKAREKIKO INTERESA Handia + Nahikoa | POLITIKAREKIKO INTERESA Gutxi + Bat ere ez |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oso europarra | **10** | 13 | 9 | 9 | 12 | 10 |
| Nahikoa europarra | **29** | 32 | 29 | 27 | 29 | 30 |
| *EUROPAR-SENTIMENDUA (Oso+Nahikoa europarra)* | 39 | 45 | 38 | 36 | 41 | 40 |
| Ez oso europarra | **33** | 25 | 37 | 34 | 34 | 33 |
| Batere europarra ez | **19** | 17 | 17 | 22 | 21 | 18 |
| Ed/Ee | **9** | 13 | 8 | 8 | 4 | 9 |
| PORTZENTAJEA GUZTIRA | **100** | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2012)*

**Jarrai gaitzazu sare sozialetan!**